

Asisko gutuna

2009ko urtarrila. 3. printzipioa: Kanporantz begira,

elkartasuna

3. zenbakia

Asis Sarea eguneroko bizitzan frantziskotar espiritualtasuna bizi nahi duten laikoei zabaldutako sare soziala da.

Sare honetan parte hartzen dugun lagunok lau printzipio partekatu nahi ditugu. Hiruk gure eguneroko bizitzari begiratzen diote: harreman/otoitz pertsonala Jainkoarekin, apaltasuna argi gisa, eta solidaritatea kanpora begiratzeko argi gisa. Laugarren printzipioak anaiartea konpartitzera, zerbait elkarrekin jartzera, gonbidatzen gaitu bi bitartekoren bidez:

- Hilabete bakoitzaren erdi aldera, Gutun hau helaraziko diegu helbidea ematen diguten guztiei. Biran-biran, gogoetarako testu baten eta Ebanjelioaren eta San Frantziskoren pasartearen irakurketaren bidez aipaturiko lau printzipioak landuko dituzte.
- Hilabete bakoitzeko azken ostegunean, arratsaldeko 19.30ean hileko otoitz topaketa egingo dugu hainbat

herritan, otoitz hori hemen eskainitako testuetan inspiratuko delarik. Gutunaren azken aldean ikus dezakezu, urtarilean otoitz hau egingo den herrien erreferentzia.

Asisko Gutunaren hirugarren zenbaki honek elkartasuna jorratzen du frantziskotar espiritualtasunaren oinarritzko printzipio gisa.

Asis Sarea ez da talde bat edo erakunde bat. Besterik gabe, helbide batek lotzen gaitu, hileko gutun hau hartu ahal izateko. Hemendik abiatuz, norberak erabakitzen du noraino heldu nahi duen. Ez da ezinbestekoa, adibidez, hileko otoitzean parte hartzea. Pasiboki parte har daiteke bere zentzua ezagutzeko eta ulertzeko. Asis Sarea irekia dago zuretzat.

Gogoetarako gaia

Solidaritaterako dugun ezina eta iturria

Min ematen digu munduak. Oinazez eta sufrimenduz inguratuta gaude. Gaizkia besterik ez dagoela dirudien mundu bidegabeko batean bizi gara. Zerbait egin nahi genuke, baina bizitzak etekin motza ematen digu, ezinean sentitzen gara hainbesteko bidegabekeriren eta sufrimenduren aurrean, neurri batean errudun sentitzen gara pribilegiatu izateagatik eta gure ongizateak bidegabekeriarekin zerikusia daukalako; baina ez dakigu ondo zer egin eta ez gaude prest bizitza gehiegi konplikatzeko eta bizi dugunari uko egiteko.

Sarritan hau da gure sentsazioa: mundua gaiztakeriak gobernatzen duela. Sufrimenduak ez daukala erremediorik eta ezin dugula ia ezer egin. Gizarte indibidualista honetan geure txoko babestuaren bila gabiltza, ez dugu daukaguna galdu nahi eta planto egiten dugu, geure freskura eta itxaropena galduz.

Nola jar gaitezke sufrimenduaren aurrean beste era batera? Zer egin dezakegu geuretzat bakarrik ez

bizitzeko, geuretik harantzago entzuteko?

Horretaz jabetzen ez garenean ere, maitatzea da geure irrikarik barnenetako bat. Honetaz mintzo da Ebanjelioa, eta beste era batean bizitzera gonbidatzen gaitu: Jesusek esaten digu, den orok hartzen duela nondik-norakoa maitasunean. Jainkoak maite gaituela. Hau nekez konprenitzen badugu ere, Jainkoaren maitasunari gutaz jabetzen utziz, geure bizitza besteengana irekitzen da. Jainkoak ontasunaren iturrietara garamatza.

Jesusek atzekoz aurrera jartzen ditu lehentasunak: azkenak eta txikiak ditu gogokoen, horiek dira zorionsuak. Ebanjelioak begi-belarri jartzen gaitu errealitate honetara eta solidaritatera bultzatzen. Jainkoak konfiantza du guregan eta bidea irekitzen digu konfiantzara, bestearen minera urreratzea bideratzen digu. Etorkizun hobe baten alde borrokatzeko eta giza sufrimenduak arintzeko eginkizunek zentzu osoa hartzen dute Ebanjelioaren bihotzetik.

Ebanjelioko pasartea: Jn 15, 9-15

Aitak maite nauen bezala, halaxe maite zaituztet nik ere zuek; iraun tinko nire maitasunean. Nire aginduak betetzen badituzue, nire maitasunean iraungo duzue, nik neure Aitaren aginduak betez haren maitasunean irauten dudana bezala.

Hau guztia nire poza zeuengan izan dezazuen esan dizuet, eta poz hori bete-betea izan dadin. Hau da nire agindua: maita dezazuela elkar nik maite izan zaituztedan

bezala. Ez die inork maitasun handiagorik adiskideei, bere burua haien alde ematen duenak baino.

Zuek nire adiskide izango zarete, nik agintzen dizuedana egiten baduzue.

Aurrerantzen ez dizuet morroi deituko, morroiak ez baitu jakiten nagusiaren asmoen berri; zuei adiskide deitzen dizuet, neure Aitak jakinarazitako guztia adierazi baitzuet.

San Frantziskoren testua: 1R 5, 13-15

Eta anaia batek ez biezaio beste bati gaizki egin edo esan; baizik eta, espirituzko karitateaz, elkar zerbitza eta elkarri obedi biezaiote borondatez. Horixe da, izan ere, Jesu Kristo gure Jaunaren obedientzia egiazko eta santua.

Salmoa: 72 (71)

Ene Jainko, emaiizu zeure zuzentasuna erregeari, zeure justizia erregearen semeari.

Goberna beza zure herria justiziaz, zure dohakabeak zuzenbidez.

Ekar bezate mendi eta muinoek herriarentzat justiziazko bakea!

Egin biezaie justizia herriko dohakabeei, salba bitza behartsuak, apurtu zapaltzaileak!

Iraun beza eguzkia eta ilargia direino, munduaren azkena arte!

Jaits bedi euria belardira bezala, lurra asetzen duen lanbroa bezala.

Haren egunetan, lora bedi justizia, ugaldur bakea eta ongizatea, ilargia itzali arte! (...)

Berak libratuko du laguntza eske oihuka ari den behartsua, nor defendaturik ez duen dohakabea.

Gupida izango die gizagaixo eta pobreei, bizia salbatuko behartsuei.

Berak babestuko ditu gogorkeria eta bidegabekeriak.

Balio handia izango du haien biziak berarentzat!

Bizi bedi luzaro! Eman biezaiote Sabako urrea, egin bezate otoitz haren alde etengabe,

bedeinka bezate egunero!

Izan bedi gari ugari lurraldean,

mendi gainetan kulunkan;

sor beza fruitua Libanok bezala, zelaiko belarra bezain ugari!

Iraun beza haren izenak betiko, eguzkiak adina!

Bedeinkatuak bitez harengan ondorengoak, zoriontsu nazio guztiak!

Gutuneko azken hitzak

Solidaritatega ez da soilik obra onak egitea, geure burua on eta zuzenetsia sentitzeko edo zerua irabazteko. Ezin da izan interesatua, maitasunaren dohaintasunean oinarritua baizik. Bitzita ezin da ireki eta zabaldu solidaritaterik eta dohaintasunik gabe.

Oharrak:

Urtarrileko elkarrekiko otoitzaldia 29an, ostegunean, 19.30ean egingo da, honako toki hauetan: Beasain (San Martin parrokoa), Bermeo (Frantziskotarren komentua), Bilbo (Iralako frantziskotarren parrokoa), Donostia (Frantziskotarren parrokoa), Gernika (Asisko Frantziskoren parrokoa), Iruñea (Asisko Frantziskoren parrokoa), Gasteiz (Frantziskotarren etxea – Castillo Villamonte, 2), Tolosa (Klarisen komentua), Zarautz (Santa Klarako eliza), Zegama (Parrokia).

Asis Sareari buruzko informazioa hartu nahi izanez gero, edo gutun hau hileroko hartzeko izena emateko, deitu 646-214896 telefono zenbakira edo bidali mezua asissarea@arantzazu.org helbide elektronikora.

Asis Sarearen ezaugarri nagusia da irekia izan nahi duela eta bere asmoa biderkatzea. Irekitasun hau sarean parte hartzen dugun bakoitzari egitea dagokigu. Guztiok biderka dezakegu Asis Sarea, hileroko-hileroko lagun berri bat gonbidatuz Gutun hau jasotzera edo hileroko otoitzaldian parte hartzera.

**2009ko otsaileko eguneroko ebanjelioa**

Egunero Ebanjelioa irakurri nahi duten lagunek, egun bakoitzari dagozkion irakurgaien arabera, hemen dauzkate otsaileko erreferentzia guztiak:

1 Mk 1, 21-28	7 Mk 6, 30-34	13 Mk 7, 31-37	19 Mk 8, 27-33	25 Mt 6, 1-6. 16-18
2 Lk 2, 22-40	8 Mk 1, 29-36	14 Lk 10, 1-9	20 Mk 8, 34-39	26 Lk 9, 22-25
3 Mk 5, 21-43	9 Mk 6, 53-56	15 Mk 1, 40-45	21 Mk 9, 1-12	27 Mt 9, 14-15
4 Mk 6, 1-6	10 Mk 7, 1-13	16 Mk 8, 11-13	22 Mk 2, 1-12	28 Lk 5, 27-32
5 Mk 6, 7-13	11 Mk 7, 14-23	17 Mk 8, 14-21	23 Mk 9, 13-28	
6 Mk 6, 14-29	12 Mk 7, 24-30	18 Mk 8, 22-26	24 Mk 9, 29-36	